

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 829/2019 Erabakia, abenduaren 27koa. Onestea sexuaren edo sexu orientazioaren ziozko sexu jazarpenaren aurkako protokoloa

Langileen Estatutuaren Legearen testu bategina onesten duen urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuak 4.2 e) artikuluan aitortzen du langileek sexu jazarpenik gabeko lan giroa —eta, hedaduraz, jazarpen sexistarik gabeko lan giroa- izateko duten eskubidea.

Era berean, Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko funtzionarioen lan baldintzak onesten dituen Foru Gobernu Kontseiluaren uztailaren 26ko 36/2017 Foru Dekretuak hau xedatzen du 84. artikuluan: “Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoko 48. artikulua aplikatuz, Aldundiak jazarpen sexual eta sexistaren aurkako berriazko protokoloa prestatuko du”.

Agindu hori betetzeko, Arabako Foru Aldundiak, bere ahalmenen esparruan, bere gain hartzen du bertako langileen funtsezko eskubideak bermatzeko eginkizuna eta, beraz, protokolo bat bultzatu du sexu jazarpen, sexu arrazoiengatiko jazarpen eta sexu orientaziogatiko jazarpen egoerak prebenitzeko eta halakoei heltzeko, zeinaren helburua baita prebentzio neurriak ezartzea eta horrelako egoeretan jarduteko prozedura arautzea.

Azaldutako helburuak zenbaterainoko garrantzia duen ikusita, Arabako Foru Aldundiak, bertako langileen ordezkari diren erakundeekin negoziazio prozesu bat egin ondoren, eta haietako kideen adostasunarekin, Foru Gobernu Kontseiluak onetsi dezan dakar Arabako Foru Aldundiaren jarduketa protokoloa sexu jazarpenaren, sexu arrazoiengatiko jazarpenaren eta sexu orientaziogatiko jazarpenaren aurrean.

Aztertu dugu Kontuhartzailatza eta Kontrol Zerbitzuak Arabako Lurralde Historikoaren Aurrekontua Betearazteari buruzko Arauan ezarritakoarekin bat etorritik emandako xxxxxx zenbakiko arauen kontrol ekonomikoaren txostena.

Bigarren diputatu nagusiorde eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuak hala proposatuta, bat etorritik ondoren aipatzen diren foru dekretuek ezarritakoarekin: Arabako Foru Aldundiaren Sailak zehazten dituen Diputatu Nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretua —Diputatu Nagusiaren uztailaren 19ko 345/2019 Foru Dekretuak aldatua—, Funtzio Publikoaren Arloko Eskumenak ezartzen dituen Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 30eko 154/1993 Foru Dekretua, eta funtzio publikoaren gaietan eskumena duen sailaren egitura organikoa eta funtzionala onesten duen otsailaren 9ko 10/2016 Foru Dekretua; eta Foru Gobernu Kontseiluak 2019ko abenduaren 27(e) an egindako bilkuran kideek gaia aztertu ondoren, honako hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onestea Arabako Foru Aldundiaren jarduketa protokoloa sexu jazarpenaren, sexu arrazoiengatiko jazarpenaren eta sexu orientazioagatiko jazarpenaren aurrean.

Bigarrena. Erabaki hau eta eranskina ALHAOn argitaratzea.

Gasteiz, 2019ko abenduaren 27a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Bigarren diputatu nagusiordea eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua

CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR

Funtzio Publikoko zuzendaria

ADOLFO LANDER VERA

ERANSKINA

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN JARDUKETA PROTOKOLOA SEXU
JAZARPENAREN, SEXU ARRAZOIENGATIKO JAZARPENAREN ETA
SEXU ORIENTAZIOAGATIKO JAZARPENAREN AURREAN

AURKIBIDEA

1. PRINTZIOPIOEN ADIERAZPENA
2. APLIKAZIO ESPARRUA
3. APLIKATU BEHARREKO ARAUTEGIA
4. DEFINIZIOAK
5. PREBENTZIO NEURRIAK
6. BERMEAK PROZEDURA GARATZEAN
7. PROTOKOLOA ETA FASEAK
8. BERDINTASUN BATZORDEA
9. JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA
1. PRINTZIOPIOEN ADIERAZPENA

Sexu jazarpena, sexu arrazoiengatiko jazarpena eta sexu orientazioagatiko jazarpena diskriminaziotzat ere hartu behar da. Alde batetik, lan merkatuan desberdintasuna mantentzea ekartzen du, eta bestetik, pertsonen funtsezko eskubideak urratzen dira, hala nola duintasunerako, intimitaterako, sexu askatasunerako, sexu arrazoiengatik ez baztertzeko, osasunerako eta laneko segurtasunerako eskubideak.

Lantokian gertatzen diren sexu jazarpenek, sexu arrazoiengatiko jazarpenek eta sexu orientazioagatiko jazarpenek, ez dituzte ondorio negatiboak zuzenean jasaten dituen pertsonarengan bakarrik; gainerako langileengan eta Foru Administrazioan bertan ere badituzte. Horrenbestez, erakundearen jarduera arruntean eta lan giroan ere eragiten dute.

Hori dela eta, giro positibo eta osasungarria garatzea, eta lantokian giza eskubideak eta pertsona guztien duintasuna errespetatzea ezinbestekoa da Arabako Foru Aldundia osatzen duten pertsona guztientzat; baita ardura eta betebeharrak ere. Horrez gain, Foru Administrazioak

ez du sexu jazarpena, sexu arrazoiengatiko jazarpena eta sexu orientazioagatiko jazarpena onartu behar, eta biktimei arreta eman eta lagundu behar die.

Horregatik, Arabako Foru Aldundiak protokolo bat garatu du, alde batetik, sexu jazarpena, sexu arrazoiengatiko jazarpena eta sexu orientazioagatiko jazarpena prebenitzeko, eta bestetik, biktimei arreta emateko eta laguntzeko. Hor, lan arloko erakundeek berariaz jasota uzten dute, beren erantzukizunen barruan, behar beste neurri hartuko dituztela jazarpenik gabeko lan giroa bultzatzeko. Beraz, ez dute utziko mota horretako jokabideak egotea.

Halaber, protokolo hori, esparru honetan aurkeztutako erreklamazio eta salaketei erantzuteko jarduketa prozedura bat da.

Arabako Foru Aldundiaren sail guztiek elkarrekin esku hartuz bakarrik lor daiteke edozein jokabide edo portaerarik gabeko inguru bat, lantokian zuzenean edo zeharka diskriminazioren bat ekartzen duena.

Berdintasunerako, diskriminaziorik ez izateko, osotasun moralerako, intimitaterako eta lanerako eskubideen arabera, Arabako Foru Aldundiak adierazten du sexu jazarpenak, sexu arrazoiengatiko jazarpenak eta sexu orientazioagatiko jazarpenak eraso egiten diotela langileen duintasunari. Horrenbestez, lantokian mota horretako edozein jarduera baztertu eta debekatu du. Bestalde, berariaz nabarmentzen du ekintza horiek ez dituela onartuko, eta beharrezko baliabideak emango dituela lan esparruan halakoak gerta ez daitezen.

Hortaz, berariaz debekatuta dago mota horretako edozein portaera edo jokabide, eta legedi penalak ezarritakoa gorabehera, falta oso astuntzat har daiteke. Falta horrek, protokolo honek eta apirilaren 12ko 7/2007 Legeak, langile publikoaren oinarrizko estatutuarenak, mota horretako jokabideetarako proposatzen dituzten zehapenak ekar ditzake.

Aldundi honetan zerbitzuak ematen dituen edozein pertsonak, eta zehazki, hautetsiek, zuzendaritzako organoek eta langileek, aldundiarekin duten harremana edo izaera juridikoa edozein dela, lantokian sexu jazarpenaren, sexu arrazoiengatiko jazarpenaren eta sexu orientazioagatiko jazarpenaren arazoa prebenituko dutela hitzematzen dute.

Beraz, Arabako Foru Aldundiak hitzematzen du, hala badagokio, protokolo honen bidez araututakoaren arabera, sexu jazarpena, sexu arrazoiengatiko jazarpena eta sexu orientazioagatiko jazarpena prebenitu eta zigortuko dituela, beharrezko bermeekin, lantokian dauden konstituzio, lan eta administrazio arauak, eta oinarrizko printzipio eta eskubideen deklarazioak kontuan hartuz. Horrez gain, biktimei babesa eta laguntza ematean, Berdintasun Batzordearen printzipioei (errespetua, profesionaltasuna, objektibotasuna, inpartzialtasuna eta bizkortasuna) jarraituko zaiela bermatuko da.

2. APLIKAZIO ESPARRUA

1. Protokolo hau, besteak beste edozein lotura juridiko duen Arabako Foru Aldundiko langile publiko guztiei, behin-behineko langileei eta kargu politikoei aplikatuko zaie; baita Foru Administrazio honetan eginkizunak egin eta garatzen dituzten praktiketako langile eta bekadun guztiei ere.

2. Arabako Foru Aldundiak kontratatutako kanpoko enpresa, enpresa laguntzaile, sozietate eta fundazioei jarduketa protokolo honen berri emango zaie.

3. Arabako Foru Aldundiko langileen eta kontratatutako kanpoko enpresa baten langileen artean honelako jazarpen bat gertatuko balitz, eragindako enpresek elkarrekin hartuko dituzte neurriak, laneko arriskuen prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legeko 24. artikulua arabera.

4. Protokolo hau ere aplikatuko da hor ezarritako jazarpen motak lehen atalean adierazitako langileek Arabako Foru Aldundiaren zentro eta zerbitzuetako erabiltzaileei egin badizkiete.

3. APLIKATU BEHARREKO ARAUTEGIA

Nazioarteko arautegia:

- Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala: 3. eta 5. artikulua.
- LANEren 111. hitzarmena, 1958ko ekainaren 25ekoa, lan arloko diskriminazioari buruzkoa, eta lantokietako zerbitzuen sektoreko indarkeriari buruzko 19. gomendioa, eta aurre egiteko neurriak.

Europako araudia:

- Kontseiluaren 76/2007/EEE zuzentaraua, 1976ko otsailaren 9koa, tratu berdintasunari buruzkoa, Europako Parlamentuko 2002/73/CE zuzentarauak, gizon eta emakumeen arteko berdintasun printzipioa aplikatzeari buruzkoak, aldatutakoa, enpleguari, prestakuntza eta sustapen profesionalari, eta lan baldintzei dagokienez.
- Kontseiluaren 1991ko abenduaren 19ko adierazpena, Europako erkidegoen batzordeak 1991ko azaroaren 27an emandako 92/131/CE gomendioa aplikatzeari buruzkoa, non "Jokabide kode" bat jasotzen den, EBko herrialdeetako lantokietan sexu jazarpenari aurre egiteko.
- Europako Parlamentuko eta Kontseiluaren 2006/54//CE zuzentaraua, 2006/07/05ekoa.
- Europako esparru akordioa, 2007ko apirilaren 26koa, lantokiko jazarpenari eta indarkeriari buruzkoa.

Estatuko araudia:

- 1978ko Espainiako Konstituzioa: 1.1; 9.2; 10.1; 14; 15, 18.1, 35.1, 40.2 eta 53.2. artikulua.
- Martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa, emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasunerako: 3, 7, 8,48 eta 62. artikulua.
- Azaroaren 23ko 10/1995eko Lege Organikoa, Zigor Kodea: 184, 191, 443 eta 445. artikulua.
- 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, laneko arriskueta aurrea hartzekoa: 14. artikulua.
- Apirilaren 12ko 7/2007 Legea, langile publikoaren oinarriko estatutuarena, 14, 53 eta 95.2. artikulua.
- 2/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 23koa, onesten duena Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legearen testu bategina.
- 36/2011 Legea, urriaren 10ekoa, lan arloko jurisdikzioa arautzen duena.
- 29/1998 Legea, uztailaren 13koa, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duena.
- 69/2009 irizpide teknikoa, laneko eta gizarte segurantzako ikuskatzaitzaren jarduketari buruzkoa, lantokiko jazarpen eta indarkeriaren arloan.

Autonomia erkidegoko araudia:

- 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerakoa. 43. artikulua.
- 6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoarena: 83.b. artikulua.

Foru araudia:

- Uztailaren 26ko 36/2017 Foru Dekretua, Arabako Foru Aldundiko administrazio orokorreko funtzionarioen lan baldintzak onartzen dituena: 84. artikulua.

4. DEFINIZIOAK

4.1 SEXU JAZARPENA

Erakunde enplegatzaile baten antolaketa eta zuzendaritzaren esparruan garatutako sexu arloko edozein portaera, hitzekoa, ez hitzekoa edo fisikoa, lan harreman baten barruan eta

horren ondorioz sortzen dena. Jazarpen hori, goragoko mailetako kideek edo beheragoko mailetakoak egin ditzakete, eta helburua edo ondorioa pertsona baten duintasunari erasotzea izan daiteke, bereziki larderiako lan giroan, giro iraingarri edo laidogarri batean, egonkortasun fisiko eta emozionala nahiz jarduera profesionala arriskuan jarriz.

Sexu jazarpenaren berehalako helburua sexu atsegina lortzea da, baina azken helburua pertsona batek bestearengan duen boterea adieraztea da. Normalean gizon batek emakume baten gainean du botere hori, eta hori dela eta, botere egiturek oraindik dira gure gizartean.

Bi sexu jazarpen daude:

4.1.1 Sexu xantaia edo truke jazarpena: Eskatzen ez den sexu jokabidea onartzeak edo baztertzak zenbait ondorio ditu, hala nola lan baldintza bereziak ez izatea, mailaz ez igotzea, lekuz aldatzeko aukerarik ez izatea edo prestakuntza ez jasotzea. Hierarkikoki goragoko maila batean dauden pertsonak edo beren erabakiek, jazarritako pertsonaren enpleguan eta lan baldintzetan eragina izan dezaketenean egin dezakete.

Adibide gisa: sexu mesedeak eskatzea, jarduera profesionalarekin, lan baldintzak hobetzearekin edo lanpostua mantentzearekin zuzenean edo zeharka zerikusia dutenean.

4.1.2 Giro jazarpena:

Giroko sexu jazarpena lausoagoa izan daiteke, eta kontzientzia eta gogoeta maila berezia behar da jokabide horiek lantokian desegokitzat hartzeko, izan ere, "uneak", "eragabekeriak" edo "ondoriorik gabeko eragozpenak" izan daitezke.

Eragiten dena laneko giroa da.

Giroko sexu jazarpenaren ezaugarri nagusia da subjektu aktiboek, nahita edo konturatu gabe, sexuarekin zerikusia duen jokabide bat izaten dutela, edozein motatakoa, eta horrek, lan giro desatsegin edo deserosoa, larderiako eta etsaitasuneko giroa sor dezake langilearengan.

Goragoko maila bateko, maila berdineko edo beheragoko maila bateko pertsonak edo hiru-garren pertsonak egin dezakete, Foru Administrazioarekin nolabait lotuta daudenek.

Eragiten dena laneko giroa da.

Mota horretako jokabideen adibide gisa hauek aipa daitezke: komentarioak, limurtu nahian ibiltzea, behin eta berriz errepikatzen diren txisteak, desatseginak, sexuari buruzkoak, larriak direnak, hitzeko abusu lizunak, lantokian sexuarekin zerikusia duten irudiak erabiltzea, erreserbatutako tokietan, hala nola komunetan edo aldageletan pertsonak ezkutuan ikustea.

Sexu jazarpen motak:

Adibide gisa, berez, edo beste batzuekin batera, sexu jazarpeneko jokabide bat dagoela erakuts dezaketen zenbait portaera aipatuko dira, beste batzuk kanpoan utzi gabe.

Hitzeko jokabideak

- Sexuaren inguruko txantxa iraingarriak, eta emakumezko edo gizonezko langilearen itxura fisiko edo sexu izaerari buruzko komentarioak.
- Sexuaren inguruko esamesa lizunak.
- Sexu fantasia, lehentasun eta gaitasunei buruzko galderak, deskribapenak edo komentarioak.
- Pertsonen modu iraingarrian zuzentzeko moduak.
- Pertsonen sexu bizitzari buruzko zurrumurruak hedatzea.
- Ziberjazarpen sexuala. Jazarleak sexu helburua du eta baliabide digitalak erabiltzen ditu.

- Sexu edukiak eta iraingarriak dituzten komunikazioak (telefono deiak, mezu elektronikoak eta abar).

- Langilea bere sexu izaerarengatik iraintzea edo makurraraztea.

- Sexu hitzorduak edo topaketak ezartzeko gonbidatzea edo presionatzea.

- Sexu gonbidapenak, eskaerak edo mesedeak eskatzea, jarduera profesionalarekin, lan baldintzak hobetzearekin edo lanpostua mantentzearekin zuzenean edo zeharka zerikusia dutenean.

- Behin eta berriz gonbidatzea gizarte edo jolas jardueretan parte hartzera, gonbidatutako pertsonak ez duela nahi edo desegokiak direla argi utzi duen arren.

Hitzezkoak ez diren jokabideak

- Sexu esplizitu edo iradokitzaileko edukiak dituzten irudiak, grafikoak, biñetak, argazkiak edo marrazkiak erabiltzea.

- Keinu lizunak, txistuak, keinuak edo begirada lohiak.

- Gutun, ohar edo mezu elektroniko iraingarriak, eduki sexuala dutenak.

- Langilea bere sexu izaerarengatik iraintzea edo makurraraztea.

Jokabide fisikoak

- Berariazko kontaktu fisikoa, eskatu gabe (imurtxi egitea, ukitzea, nahi ez diren masajeak eta abar), edo gehiegi edo behar gabe fisikoki gehiegi hurbiltzea.

- Pertsonarekin behar gabe bakarrik geratzea bilatzea, edo inguratzea.

- Nahita edo "nahi gabe" sexu organoak ukitzea.

4.2 SEXU ARRAZOIENGATIKO JAZARPENA

Sexu arrazoiengatiko jazarpena pertsona baten sexuaren arabera egindako edozein jokabidea da, haren duintasunaren aurka egiteko eta larderiako ingurunea, ingurune iraingarri edo mingarria lortzeko asmoarekin edo ondorioarekin.

Genero estereotipoen (aurreiritziak, aldez aurretik sortutako ideiak eta emakumeak eta gizonak sexu arrazoiengatik bazterkeriaz tratatzea) ondorioz gertatzen diren jokabideak dira. Sistematikoki garatzen da erakunde baten barruan, edo lan harreman baten ondorioz, eta pertsona baten duintasun eta osotasun fisiko edo psikikoari erasotzen dio. Horrenbestez, larderiako giroa, giro iraingarri edo mingarria sortzen da. Jarduketa horiek sexu aukerarekin edo amatasun, aitatasun eta beste familia zainketa batzuk gain hartzearekin zerikusia dute.

Sexu arrazoiengatiko jazarpenaren tipologia

Adibide gisa, beste batzuk baztertu edo mugatu nahi gabe, berez, edo beste batzuekin batera, bere sexuarengatik pertsona bati egiten bazaizkio, sexuagatiko jazarpenak izan daitezkeen zenbait portaera aipatuko ditugu:

- Pertsona bat, bere lana edo inplikazioa jendaurrean behin eta berriz bere izen ona galarratzea.

- Pertsona bat behin eta berriz iraintzea eta modu laidogarrian, bere itxura fisikoarengatik, ideologiarengatik edo sexu aukera edo ideologiarengatik.

- Agindu kontraesankorrak ematea, eta beraz, aldi berean bete ezin direnak.

- Agindu iraingarri edota laidogarriak ematea.

- Aparteko eta etenik gabeko zaintza ekartzen duten jarrerak.

- Pertsona bat isolatzeko eta bakartzeko agindua.

- Bere sexu arrazoiarengatik goragoko maila hierarkikoetatik etorritako aginduak ontzat ez hartzea.
- Pertsona batek eskubidea duen lizentzia edota baimenak ukatzea, nahierara eta sexu arrazoiarengatik.
- Eraso fisikoa.
- Tradizioz, beste sexuko pertsonak garatu dituzten lanak bere gain hartzen dituzten pertsonak barregarri uztea.
- Sexu jakin bateko pertsonen zuzentzeko modu iraingarriak erabiltzea, bere gaitasun edo trebetasun profesionalak gutxiesteko (esaterako: "harrikoa egiteko besterik ez duzu balio", "emakumea izan behar zuen, noski...", eta abar).
- Pertsonen lana mespretxuz ebaluatzea, bidegabe edo oker, bere sexuaren edo sexu joraren arabera.
- Pertsonaren gaitasun edo eskumen profesionalaren azpiko lanak ematea, bere sexuarengatik.
- Haurdunaldi, amatasun edo aitatasun arrazoiarengatik tratatu kaltegarria ematea.
- Jokabide esplizitu edo inplizituak, pertsonak enplegua izateko edo enpleguarekin jarraitzeko, lan prestakuntzarako, ordainsariak jasotzeko edo lan baldintzekin zerikusia duen beste edozein gaitarako duen aukerari buruzko erabaki murriztaile edo mugatzaileak hartzeko.

4.3 SEXU ORIENTAZIOAGATIKO JAZARPENA

Sexu orientazioan, genero identitatean edota pertsona baten genero adierazpenean oinarritutako edozein portaera barne hartzen du, helburua edo ondorioa bere duintasunaren edo osotasun fisiko edo fisikoaren aurka egitea edo giro iraingarria, laidogarria, etsaitasunezkoa edo gogaikarria sortzea bada.

Sexu orientazioagatiko jazarpenaren tipologia

Adibide gisa, berez, edo beste batzuekin batera, sexu orientazioagatiko, genero identitate edo genero adierazpenagatiko jazarpenzat har daitezkeen zenbait portaera aipatuko dira, beste batzuk kanpoan utzi edo mugatu gabe:

- Itxura fisikoari, jokamoldeei edo hitz egiteko moduari buruzko komentario barregarriak edo barregarri uzten duten adierazpenak erabiltzea.
- Egindako lana, gaitasun profesionalak edo pertsonaren adimen gaitasuna gutxiestea, bere sexu orientazioa, genero adierazpena edo genero identitatea kontuan hartuz. Arrazoi beragatik ekarpenak edo ekintzak baztertzea (kontuan ez hartzea).
- Modu desberdinean tratatzea pertsonak bere sexu orientazioaren arabera (edozein LGTBI orientaziokoa izatea), lantokian.
- Pertsona bere sexu orientazioarengatik, adierazpenarengatik edota genero identitatearengatik barregarri uztea.
- Umore fobikoa erabiltzea LGTBI kolektibokoak badira, edo genero identitate eta adierazpenarengatik, lantokian.
- Fisikoki edo hitzez erasotzea beste pertsona bat, bere sexu orientazioarengatik, identitatearengatik edo genero adierazpenarengatik, edozein lan egoeratan.
- Pertsonak kanporatzea edo zalantzan jartzea, genero adierazpena edo identitatea kontuan hartuz, aldagela edo komun jakin batzuetan egoteagatik.

- Pertsona bat berak nahi duen bezala izendatzeari uko egitea, edo identifikatzen duen generoarenak ez diren artikulua edo izenordainak erabiltzea.

5. PREBENTZIO NEURRIAK

Sexu jazarpena, sexuagatiko jazarpena edo sexu orientazioagatiko jazarpena prebenitzeko xedez, jarduketa hauek ezartzen dira:

Erakundeak edozein jazarpen, sexuagatiko jazarpen eta sexu aukerarengatiko jazarpen bazterten dituela jasotzen duten printzipioak idatziz eta ofizialki adieraztea, sexu jazarpena prebenitzeko eta desagerrarazteko konpromisoa adieraziz, eta langileen duintasunerako eskubidea aldeztuz, betiere erakunde langileen artean errespetua sustatuz.

Protokoloaren edukia eta dibulgaziozko dokumentuak azaltzeko kanpainak, informazioa errazten dutenak, haren berri emanez eta ezaugarri nagusiak, eta zer webetan deskarga dezaketen adieraziz.

Protokoloa zabaltzea, Arabako Foru Aldundiko administrazioko langile guztiek ezagut dezaten, Intranet edo posta korporatiboaren bidez (GURENET).

Protokoloa Harrera eskuliburuan jasotzea.

Berariazko prestakuntza prozeduran parte hartuko duten eta biktimei lagunduko dieten pertsonentzat, jarraitu beharreko prozeduraren berri emanez, eta eragindako alderdi bakoitzak nola jokatu behar duen adieraziz.

Berariazko prestakuntza protokoloari buruz Arabako Foru Aldundiaren administrazioko langileak birziklatzeko ikastaroetan, Berdintasun Planaren barruan.

Berariazko prestakuntza Berdintasun Batzordeak proposatuta, sexu jazarpena, sexuagatiko jazarpena eta sexu orientazioagatiko jazarpena izan daitekeen jokabide bat aurkitu eta zigortuta, beharrezkoa bada.

6. BERMEAK PROZEDURA GARATZEAN

Jazarpenak ikertzeko prozeduran berme hauek kontuan hartuko dira:

Konfidentzialtasuna: prozeduran esku hartzen duten pertsonak konfidentzialtasun zorrotza gorde behar dute eta ezin dute zabaldu aurkeztutako salaketan edukiari buruzko informaziorik ez eta ebatzita koei edo ikertzen ari direnei buruzkorik ere. Protokolo honetan jasotzen den edozein jarduketan parte hartu duten langile guztiek sekretu eginbeharra daukate.

Pertsonen duintasuna errespetatzea eta babestea: jarduketak edo izapidetak kontu handienarekin eta eragindako pertsonak behar bezala errespetatuz egin beharko dira. Arrazoi horregatik ezin dute aurkako tratuerik jaso. Erakundeak dagozkion neurriak hartu beharko ditu ustez jazarritako pertsonen edo jazarri duten pertsonen eskubide hori bermatzeko. Eragindako pertsonak beraiek aukeratutako lagun baten laguntza jaso dezakete, prozedura bitartean, hala eskatzen badute.

Ardura eta bizkortasuna: salatutako jokabideari buruzko ikerketa eta ebazpena behar bezalako profesionaltasunarekin, ardurarekin eta behar ez bezalako atzerapenik gabe egin beharko dira, prozedura lehenbailehen osatu dadin, nahitaezko bermeak errespetatuz.

Inpartzialtasuna: prozedurak entzunaldi inpartziala eta bidezko tratamendua bermatu behar du eragindako pertsona guztientzat. Prozeduran esku hartzen duten pertsona guztiek fede onez jokatu behar dute salatutako gertaerak argitzea.

Ondorio kaltegarriak debekatzea salaketa bat egiten duten, lekuko gisa bertaratzen diren edo sexu jazarpenari, sexu arrazoiengatiko jazarpenari edo sexu orientazioagatiko jazarpenari buruzko ikerketa batean parte hartzen duten pertsonen aurka, aplikatzekoa den araudian ezarritako baldintzetan.

Protokolo hau aplikatzeak ez du eragotziko eragindako pertsonak, aldi berean edo geroago, beharrezko legezko egintzak erabiltzea.

Kexa, salaketak, alegazioak edo adierazpenak aurkezten dituen pertsonari jatorriz sinetsi behar bazaio ere, nahita iruzurrezkoak edo dolozkoak direla egiaztatzen bada, salatutako pertsonari justifikatu gabeko gaitz bat eragiteko helburuarekin, zigortu egingo dira. Ez da faltsutzat edo kalumniazkotzat hartuko fede onez aurkeztutako salaketa, nahiz eta haren egiazkotasuna ezin egiaztatu.

7. PROTOKOLOA ETA FASEAK

SALAKETA AURKEZTEA

Prozedura hasiko da Berdintasun Batzordeko edozein kidek salaketa idatziz edo hitzez aurkezten duenean. Kasu horretan, salaketa hartuko duen pertsonak idatziz jasoko ditu salatzaileak diligentsia bidez jakinarazi dizkion gertaerak, eta sinatu egin beharko du.

Ez dira izapidetzeko onartuko izenik gabeko salaketak.

Salaketak honako hauek egin dezakete:

- Ustez jazarritako pertsonak edota haren legezko ordezkariak.
- Sindikatuko ordezkariak, ustez jazarritako pertsonak baimendu ondoren.
- Edozein langile publikok, arrazoiak azalduz. Kasu horretan, ustezko biktimak jazarpena egon dela berretsi beharko du.

Behin salaketa aurkeztuta, Berdintasun Batzordea premiaz batzartuko da, datu objektiboen edota alde zuzenetik ezagututakoen lehen azterketa bat egiteko, salaketaren egiazkotasuna berresteko. Esaterako, adierazitako gertaeren kongruentziari erreparatuko zaio, edo kontraesanak edo zehaztu gabeko gauzak dauden aztertuko da.

Kasuari buruzko datu objektiboen edota alde zuzenetik ezagututakoen lehen azterketa eginda:

- Salaketa ez da onartuko, eskatutako baldintzak ez baditu betetzen, edo bistakoa bada azaldutakoa ez dagokiola protokolo honi.
- Kasua izapidetzen hasiko da, protokolo honetan eta han ezarritako prozeduretan jasotakoaren arabera.

Lehen fasea: hasierako balorazioaren txostena egitea

Kasuaren lehen balorazioa egiteko, Berdintasun Batzordeak informazioa bilduko du, eta hori, lehenbailehen eta konfidentzialtasun osoz egin beharko du. Gerta daiteke eragindako pertsonak, hots, salatzailea eta salatutako pertsona, elkarrizketatzea, eta ziur asko, baita lekukoak edo interesgarriak izan daitezkeen beste batzuk ere.

Aurretiko azterketa hori amaitutakoan, Berdintasun Batzordeak hasierako balorazioko txosten bat egingo du, ondorioekin eta ekar ditzakeen kautelazko neurrien proposamenarekin. Horrez gain, egindako jarduketak jasoko dira. Txosten hori, gehienez, 10 egun baliodunetan egin beharko da, salaketa aurkeztu zen egunetik.

Hasierako balorazio txostena ikusita, eskumeneko organoko titularrak erabaki bat hartu beharko du:

- 1.) Diziplina espediente bat hastea, falta oso astun batengatik, hasierako balorazio txostenean argi ondorioztatzen bada sexu jazarpena, sexuagatik jazarpena edo sexu orientazioagatik jazarpena dagoela.

Salatutako gertaerak delitu izan daitezkeela ezartzen bada, Fiskaltzari jakinarazi beharko zaio.

Administrazio bidean egindako salaketaz gain, gertaerak egoitza jurisdikzionaletan ere salatzen badira, administrazio prozedura berehala etengo da, zer fasetan dagoen kontuan hartu gabe, penalki ebatzi bitartean.

Edozein dela kondena epaitza edo sortu den zigor epaiaren absoluzio epaitza, Foru Administrazioak, frogatutakotzat hartutako gertaeretan oinarrituz, dagokion diziiplina espedientea hasi ahalko du inputatutako langile publikoaren aurrean.

2.) Hasierako balorazio txostenean arrazoiz sumatzen bada sexu jazarpena, sexu arrazoiengatik jazarpena edo sexu orientazioagatik jazarpena dagoela, langile publikoaren aurka, baina oraindik balorazio zehatza egiteko moduan ez dagoela, protokolo honetan ezarritako prozedurarekin jarraitzea aginduko da, Berdintasun Batzordeak behar beste jarduketa egoki egin ditzan, egon daitekeen informazio osagarria biltzeko, azken balorazioaren eta ondorioen txosten bat egin dezan.

Zenbait kasutan, azken ondorioen txostena egin aurretik, arazo konpontzen saia daiteke, prozedura formala amaitu behar izan gabe, egindako egiaztapenen ondoren, egoera hauetako bat badago:

- Salatzaileak edo salatutako pertsonak gertaerak identifikatu eta aztertzea, eta ez errepikatzeko konpromisoa hartzea.

- Berdintasun Batzordeak zenbait jarduketa proposatzea arazo konpontzeko, eta bi alderdiak ados agertzea.

Egindako jarduketa guztiak Funtzio Publikoaren zuzendariari jakinaraziko zaizkio, dagokion txostenaren bidez.

Alderdiak ez badira inola ere ados jartzen, prozedurak, dagokion fasean adierazitako moduan jarraituko du, eta azken balorazioaren eta ondorioen txostena eginez amaituko da.

3.) Hasierako txosten horretan ondorioztatzen bada faltaren bat egon dela, baina sexu jazarpena, sexuagatik jazarpena edo sexu orientazioagatik jazarpena ez dena, dagoen araudian jasotzen dena, dagokion diziiplina espedientea hastea proposatuko da.

4.) Salaketa artxibatzea, arrazoi hauetako batengatik:

- Salatzaileak uko egitea (ofizios ikerketarekin jarraitzea bidezkoa bada salbu).

- Objekturik edo zantzu nahikorik ez egotea.

- Aldez aurreko jarduketengatik salaketaren edukia ebatzitzat hartu ahal izatea.

Bigarren fasea: prozedurarekin jarraitzea eta azken balorazioaren eta ondorioen txostena egitea.

Aurreko ataleko bigarren puntuan jaso denez, azken balorazioaren txostenean arrazoiz sumatzen bada sexu jazarpena, sexuagatik jazarpena edo sexu orientazioagatik jazarpena egon daitekeela, Funtzio Publikoaren Zuzendaritzako titularrak ikerketaren jarraitzea eta dagozkion jarduketa osagarri guztiak egitea aginduko dio Berdintasun Batzordeari, sexu jazarpena, sexuagatik jazarpena edo sexu orientazioagatik jazarpena hautematen duen erabaki dezan.

Berdintasun Batzordeak lehenbailehen jakinaraziko dio salatutako pertsonari salaketa jarri diotela, eta idatziz hitzordua eskatuko dio, data eta ordua adieraziz, entzun diezaioten. Idatzi horretan, salaketa dagoela jakinaraziko zaio, eta ez bada bertarutzen, gertaerak ikertzeari eragozten ari zaiola hartuko dela ere ohartaraziko zaio.

Berdintasun Batzordeak izapidegile bat izendatuko du bere kideen artean, eta hark, salatutako gertaerak argitzeko komenigarritzat jotzen dituen behar beste diligentsia, proba eta jarduketa egingo ditu. Instrukzioa egiten den bitartean eskura dituen ikerketa prozedura guztiak erabiliko ditu. Beharrezkotzat jotzen badu, ikertutako egoeraren ezaugarriengatik, egindako

azterketa alderatzeko, kanpoko aholkularitza eskatu ahalko die psikosozioan, zuzenbidean, lan osasunean eta bestelakoetan adituak diren pertsona edo erakundeei, prebentzioaren edo sexu jazarpenen, sexuagatiko jazarpenen eta sexu orientazioagatiko jazarpenen aurreko jarduketan esparrukoei.

Instrukzioa amaituta, azken balorazio txosten bat aurkeztuko zaio Berdintasun Batzordeari, lortutako ondorioekin eta dagokion ebazpenarekin. Aukera hauek egon daitezke:

1) Salaketa artxibatzea, arrazoi hauetako batengatik:

- Salatzaileak uko egitea (dena den, larritasunaren arabera, eta ofizioz, salaketa ikertzen jarraitu ahalko du jazarpen zantzuak aurkitzen badira).

- Objekturik edo zantzu nahikorik ez egotea.

- Egindako jarduketan ondorioz, salaketaren edukia ebatzitzat har badaiteke, hala badagokio, alderdiek lortutako akordioa adieraziz.

2) Kasua aztertuta, protokolo honen xede diren jazarpenen beste falta bat dagoela ondorioztatzen bada, eta dagoen lan arloko araudian jasotzen bada, dagokion diziplina espedientea hastea proposatuko da.

3) Aipatutako txostenean argi ondorioztatzen bada sexu jazarpena, sexuagatiko jazarpena edo sexu orientazioagatiko jazarpena dagoela, diziplina arloko eskumeneko organoari egora zuzentzeko neurriak, eta beharrezkoa balitz, diziplina neurriak har ditzala eskatuko zaio. Azken balorazioaren txostena, diziplina arloko eskumeneko organoak ebatzi beharreko informazio espedientearen hasieratzat hartuko da, ondorio guztietarako.

Berdintasun Batzordearen ebazpena salatutako pertsonari eta ustez biktima izandakoari helaraziko zaie, gehienez 5 egun balioduneko epean beste frogara edo argudiaketa batzuk aurkez ditzaten. Alegazioen kasuan, aurkeztutako alegazioak baloratuko ditu Berdintasun Batzordeak, eta balorazio horren emaitza kontuan hartuz:

- Alegazioak bazter ditzake, eta aurretik hartutako ebazpena ontzat hartu.

- Aurretik hartutako ebazpena alda dezake, aurkeztutako alegazioen arabera.

Dena den, bai salatzaileari, bai salatutako pertsonari, hartutako erabakia helaraziko zaie.

8. BERDINTASUN BATZORDEA

Berdintasun Batzorde Iraunkorreko kideek eskumena izango dute Foru Administrazioaren esparruan gerta daitezkeen sexu jazarpenari, sexu arrazoiagatiko jazarpenari eta sexu orientazioagatiko jazarpenari buruzko kontsultak eta salaketak jasotzeko.

Berdintasun Batzorde Iraunkorraren eraketa, osaera eta eginkizunak Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 26ko 52/2019 Foru Dekretuan araututa daude.

9. JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

Funtzio Publikoaren Zuzendaritzak, diziplina espediente bakoitzaren ondorioen eta balorazioaren txostenaren ondoren, sexu jazarpenari, sexuagatiko jazarpenari edo sexu orientazioagatiko jazarpenari lehenbailehen aurre egiteko zer neurri hartu dituen jakinaraziko dio Funtzio Publikoaren Zuzendaritzari.

Berdintasun Batzordea, aurkeztutako salaketen kontrolaz eta erregistroaz, nahiz espedienteen ebazpenaz arduratuko da. Berdintasun Batzordeak urtean zehar egindako jarduketan memoria/ebaluazio bat bidaliko dio Funtzio Publikoaren Zuzendaritzari.

Horrez gain, protokoloa bera ebaluatzea ere aurreikusten da, sexu jazarpenaren, sexu arrazoiengatiko jazarpenaren edo sexu orientazioagatiko jazarpenaren aurkako prebentzio eta

jarduketa tresna gisa, ezarri eta urtebetera, betiere lege aldaketak edo hobekuntzak gertatzen badira horren inguruko ezagutza teknikoetan.

Legezko arau edo goragoko maila bateko arau konbentzional bat balego, protokolo honen edukian eragiten duena, Arabako Foru Aldundiak hitzematzen du berehala egokituko duela.